



Urriaren 19tik azaroaren 2ra Askapenaren aurkako epaiketa izango da. Fiskaltzak Aritz, Unai, David, Gabi eta Walterrentzat sei urteko kartzela zigorra eta Askapena bera, Askapeña konpartsa, Herriak Aske eta Elkar Truke elkarteen ilegalizazioa. Epaiketa honi aurre egiteko Herriak Libre dinamika aurkeztu dute gaur goizean, prentsaurreko baten bidez. Dinamika honen bitartez argi utzi nahi diote estatuari ez dela inor mugimendu internazionalista epaitzeko. Gainera dinamika honen barruan espainiar estatuaren aurkako herri epaiketa bultzatuko dute, estatuak Euskal Herrian zein kanpoan burutu izan eta dituen eskubide zapalkuntzengatik. Duela 500 urte Amerikan egin zuen sarraskia, gaur egun Latinoamerikan multinazionalak burutzen dituzten eskubide zapalkuntzak, OTANen inperialismoaren babesa, espainiar estatuko herriak ukatzeagatik (Herrialde Katalanak, Galiza, Andaluzia, Gaztela...) epaitua izango da. Epaiaketaren emaitza urriaren 12an egingo da publikoa.

Prentsa oharra:

Espainiako Auzitegi Nazionalak azkenik, jakinarazi du Askapenaren aurkako epaiaketaren data. Datorren urriaren 19tik azaroaren 2ra, Askapena bera, Askapeña konpartsa, Herriak Aske eta Elkar Truke elkarteak ilegalizazio eskaerez gain, Aritz, Unai, David, Gabi eta Walterrentzat sei urteko gartzela zigorra eskatzen dute.

Injustizia berri honen aurrean, auziperatu, militante internazionalista, eskubide zibil eta politikoen aldeko ekintzaile, herri mugimenduko kideak eta han eta hemengo borrokalariak elkartu gara, HERRIAK LIBRE izendatu dugun dinamikaren berri emateko.

Epaiaketa politiko eta eskubide zibil eta politikoen urraketa berri honen aurrean, Euskal Herrian arloz arlo gure herriarentzat etorkizun aske bat eraikitzen gabiltzanok, Herriak Libre mugimendutik hain zuzen, mezu argi bat nahi diogu helarazi espainiar gobernuari:

Ez dugu onartzen estatu espainiarrak euskal internazionalistak eta euskal eragile internazionalistak epaitzea. Ez dugu inolaz baimenduko hamaika herriren zapalketa, ukazio eta suntsiketak eragin dituen Estatu inperialista honek, Espainiar Estatuak hain zuzen, herrien askatasunaren alde borrokatzen dugun kide eta eragileak epaitzea. Mende luzeetan zehar inoizko politika inperialistarik basatiena garatu duen Espainiar Estatuak ez da nor euskal militanteak epaitzeko. Herria bera da Espainiar Estatuak epaitu eta kondetu behar duena.

Ez dugu onartzen estatu espainiarrak epaitzea bera denean, Euskal Herria ukatu eta zapaltzeaz bat, gure herriaren askapenean tinko lanean dihardugunon eskubide zibil eta politikoak urratzen dituen. Horregatik herri bezala Espainiar Estatuak epaituko dugu, urteetan zehar militanteak atxilo hartu, torturatu, espetxeratu eta sakabanatzen dituelako. Herri zahar hau historiaren mapatik desagerrarazi, asimilatu eta sumiso nahi gaituelako.

Baina Euskal Herrian bezala, munduko herri desberdinen espoliazio, arpilatze eta sarraskien erantzulea da Espainiar Estatuak, bere interesetarako herri ezberdinak zapaldu ditu urte luzeetan zehar. Espainiar Estatuak, Estatu inperialista da, eta hala epaituko dugu!

Espainiar Estatu inperialista epaituko dugu Euskal Herrian itsasoaren bestaldeko anai arreben aurka duela bost mende inguru gizateriak inoiz ezagutu gabeko genozidiorik handiena burutzeagatik. Eta gaur gaurkoz, transnazionalen bitartez latinoamerikako baliabideen lapurretan jarraitzen duelako, gobernu aurrerakoien aurka etengabe aritzeaz gain.

Espainiar Estatu inperialista epaituko dugu, euskaldunon hitzaren gaintik, OTAN bezalako egitura inperialista baten kide izanda, milaka eraildako eta dozenaka herrialderen zapalketan parte hartu eta beraz erantzule zuzena delako.

Espainiar Estatu inperialista epaituko dugu Sahara okupatu ondoren, bertako biztanleak jo mugan jarri eta lau hamarkada beranduago autodeterminazio erreferendum bat bultzatu beharrean, sahararren eskubideen urraketa parte hartze zuzena duen Estatuak delako.

Espainiar Estatu inperialista epaituko dugu, Euskal Herriaren antzera, Herrialde Katalanak, Galizia, Andaluzia, Gaztela, Aragoi eta gainerako Estaturik gabeko nazioak sistematikoki ukatu eta zapaltzeagatik.

Espainiar Estatu inperialista ez da nor inor epaitzeko! Bera da epaitua izan behar dena, herrien kontrako praktika inperialistarengatik.

Denon artean beraz, atzo eta gaurko Estatu espainiarraren izaera kriminala agerian utziko dugu. Ez gaude prest herrien askapena borrokatzen duten kideen aurkako epaiaketa politikorik onartzeko.

Honegatik, dei egiten diogu euskal herri errebeldeari zapalkuntza ororen aurka borrokan ari

den herri desobediente horri eta nazioarteko mugimendu konprometituei, ikasturte berriarekin batera, irailean, Espainiar Estatu inperialistaren aurkako herri epaiketak burutzera. Udarari zehar, auzo, herri eta bailaratan antolatu eta irailean kaleak hartu, herriko plazak bete eta Euskal Herrian zehar Espainiar Estatu inperialista epaitzera deia egiten dugu!

Eta datorren urriaren 12an, herri epaiketa guzti hauek, sententzia bakarrean batuko ditugu, Euskal Herriko eta nazioarteko txoko desberdinetan egindakoa, ahots bakar batean bilduko dugu, Espainiar Estatu inperialistaren aurkako **HERRI SENTENTZIAN** hain zuzen.